



Sartu

Estilo liburua

Astelehena
2018ko urtarrilak 15



Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro

Berria TB

Kultura

'GAILUR EKAIZTSUAK'

Bronteren ekaitzak

Idazlea: Emily Bronte. Itzultzailea: Irene Aldasoro. Argitaletxea: Erein-Igela.

Joannes Jauregi

2018ko urtarrilak 14



Tradizioak maitasun istorio gisa saldu digun arren, uste dut *Gailur Ekaiztsuak* nobela ezin dugula, gaur egun behintzat, amodiozko istoriotzat hartu. Euskarazko edizioaren kontrazalean, *ero*, *galgarri* eta *menderaezin* adjektiboekin deskribatzen zaigu; Wordsworth etxearen ingelesezko edizioan, berriz, *basati*, *pasiozko* eta *ia deabruzko* ditugu. Izan ere, menderakuntza istorio bat dugu esku artean; menderakuntza bortitz eta maskulinoa, eta biluzia, gainera, maitasun erromantikoaren ohiko maskara goxoan ezkutatu gabea. Inon amodio aztarnarik bada, berehala nagusitzen zaizkio gizonezkoren baten herra eta bortizkeria; eta, horien guztien erdian,



Heathcliff pertsonaia *deabruzkoa* dugu, zeinak gehiago baitu bilau mendekatzailatik maitale heroikotik baino. Hala, Heathcliffen gaztaroko sufrikarioen mendekuak oso-osorik irensten du beraren eta Catherineren arteko maitasun istorioa, eta guztiz ahitzen.

Muturrera eramandako sentimendu eta grinaren anabasa horretan, badugu beste plano garrantzitsu bat, pertsonaiez eta argumentuaz gain, zeina gabe nekez uler baitaiteke kontakizunak hartzen duen karga lirikoa: paisaia. Istorioa Yorkshire aldean gertatzen da, landako eremu isolatu batean, eta paisaia horren deskribapen xehe bezain ederrek berebiziko garrantzia dute kontakizun osoan. Deskribapen horietan, pertsonaien eta istorioaren lortzak suma daitezke naturan, kasik paisaia bera ere pertsonaia bat balitz bezala. Horregatik, paisaiaren laztasunak ere taxutzen ditu, ederki taxutu ere, nobelako pertsonaia gehientsuenak. Hala, hein batean behintzat, paisaia beste pertsonaia bat dela esan dezakegu, eta baita pertsonaiak naturako elementuen antzera daudela taxutuak: baditugu trumoi burrunbatsuak, belar-izpi trinko eta isilak, eta, batez ere, Gailur Ekaiztsuak etengabe zafutzen dituzten haize bolada bortitz eta apetatsuak.

Baina nobela hau inondik ere ez da lirismo erromantiko hutsa; izan ere, Brontek literatur teknika ezin landuagoa du, tamalez nobela bakarra duen *Gailur Ekaiztsuak* honetan. Nobelak abiapuntu xumea du, baina, istorioak aurrera egin ahala, argumentua eta narratzaileen konplexutasuna aberastuz doaz. Izan ere, nobelako narratzaile nagusia den Lockwood pertsonaiari kontatu egiten diote Heathcliff eta Catherinen istorioa. Nellyk kontatzen dio, zeina neskame baitzen istorio hori gertatu zen etxean, eta, ondorioz, istorio nagusiaren

lekuko izan zen. Bi narratzaile geruza ditugu, hortaz, nobelaren zatirik handiengan, eta ezin hobeto zainduak daude narratzaile bakoitzaren ahots eta ikuspuntuak. Nellyk ez digu, zuzenean behintzat, berak entzun edo ikusi gabeko ezer kontatzen; horretarako, Brontek beste pertsonaien eskutitzak edo zeharkako kontakizunak txertatzen ditu haren kontakizunean, maisuki txertatu ere. Narratzaileak bata bestearen segidan biderkatzen zaizkigu, eta ezin txukunago tolesten, Bronteren narrazio ezinago zainduan.

Labur batean itzulpenaz aritzea zilegi bada, derrigor esan behar da Aldasoreen testuak ederki eusten diola Bronterenari; eta hori ez da meritu makala. Euskaraz *eduki beharreko* liburua da, esan ohi den bezala; baina *Gailur Ekaiztsuak* hau, *euskaraz eduki ez ezik, euskaraz irakurtzekoa* ere bada.

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIaren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

Martxelo Otamendi
BERRIAko zuzendaria

Izan zaitez BERRIAlaguna

berria

Berria.eus - Euskal Editorea SM







JARRAITU

SAILAK

LEGEA




Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

 Facebook
 Google
 Twitter
 Instagram
 Youtube
 RSS

Gizartea
Politika
Mundua
Ekonomia
Iritzia
Berria TB

Kirola
Kultura
Bizigiro
Ibilkari
Infografiak
Argazkiak

Lege Informazioa
Pribatutasun
politika
Cookieak
 Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak